

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

1849/2020, uztailaren 6aren Ebazpena. Arabako Foru Aldundiaren eta Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillaren arteko hitzarmena argitaratzea. Hitzarmen horren bidez, kudeaketa esleipen bat ezartzen da aisialdirako tokiko parkeetan zaborrak biltzeko lanetarako

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 24ko 168/2020 Erabakiaren bidez, Guardia-Arabako Errioxa Kuadrillarekin hitzarmen berri bat sinatzea onetsi zen. Hitzarmen horretan ezartzen da zaborrak biltzeko lanak kudeatzeko esleipena, eta ondoren hondakinak kudeatzeko baimendutako instalazio batera eramatea, San Gines, San Justo, Berberana, Poveda, Bercijana eta Samaniegoko aisialdirako tokiko parkeetan dauden edukiontziak balorizatu eta tratatzeko. Horiek guztiak foru-aldundiarenak dira. Hitzarmen horrek, gutxienez, lau urteko indarraldia izango du, 2020ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra.

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 1eko 41/2015 Legearen 11.3-b artikuluan xedatutakoari jarraituz,

EBAZTEN DUT

Hitzarmen hori, ebazpen honi erantsirik doana, ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 6a

Lurralde Orekaren zuzendaria
JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA

ERANSKINA

HITZARMENA, ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ETA GUARDIA - ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLAREN ARTEKOA, HONAKO LAN HAUEN KUDEAKETA ESLEIPENERAKO: ARABAKO FORU ALDUNDIARENAK DIREN SAN GINES (BASTIDA), SAMANIEGO, BERBERANA ETA PAVEDA (GUARDIA), SAN JUSTO (OION) ETA BERCIJANA (IEKORA) AISIALDIRAKO TOKIKO PARKEETAKO EDUKIONTZIETAKO ZABORRA ETA HONDAKINAK BILDU ETA HONDAKIN KUDEATZAILE BAIMENDU BATERA ERAMATEA

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 30a.

BILDU DIRA

Batetik, Irma Basterra Ugarriza andrea, Arabako Foru Aldundiko Lurralde Orekaren Sai-leko diputatua (Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 325/2019 Foru Dekretuaren bidez izendatua), Aldundiaren ordezkari lanetan, daukan karguaz eta Diputatuen Kontseiluak 2020ko martxoarenaren 24ean 168 Erabakiaren bidez emandako ordezkartiaz baliatuz.

Bestetik, Joseba Fernández Calleja jauna, Guardia – Arabako Errioxako Kuadrillako presidentea, haren ordezkartizan, kuadrillako batzar orokorrak 2019ko urriaren 10ean hartutako erabaki bidez baimendua hitzarmena sinatzeko.

ADIERAZTEN DUTE

I. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak 24.2 eta 37. artikuluetan eta azaroaren 25eko 27/1983 Legeak (autonomia-elkarte osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundeen arteko harremani buruzkoa) 7.1 artikuluan onesten dute Arabako Lurralde Historikoak foru organoak antolatze eta haien araubidea ezartzeko eskumena daukala. Bada, eskumen hori erabiltzeko Arabako Foru Aldundiak abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak (Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoa) xedatzen duena aplikatzen du.

II. Lurralde Orekaren Saila Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez sortu zen (2019-2023 legegintzaldirako Arabako Foru Aldundiaren sailak zehazten dituena), Foru Aldundiak toki erakundeentzako aholkularitzaren arloan eta Arabako Lurralde Historikoko aisialdiko toki parkeen mantentzearen arloan daukan eskumenak erabiltzeko, besteak beste.

Eskumen horiek 52/1992 Foru Arauak 38., 40., 70. eta 73. artikuluetan eta horiekin zerikusia dutenetan sail guztiei oro har ematen dizkien ahalmenen eta eskuduntzen esparruan erabiltzen ditu Lurralde Orekaren Sailak.

III. Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 9/2016 Foru Dekretuak 12. artikuluan Toki Administrazioaren eta Larrialdien Zerbitzuak Lurralde Orekaren Zuzendaritzaren barruan egin beharreko lanak ezarri zituen. Besteak beste, 1.f) puntuan ezartzen du aisialdirako tokiko parkeak sortu, zaindu eta mantentzeko sustapena, kontrola eta koordinazioa dagozkiola.

IV. 1985. urtean "aisialdirako tokiko parkeak" sortu ziren. Harrezkero, parkeok artatzeko eta mantentzeko lanen barruan, erabiltzaileek sortzen dituzten zaborrak bildu eta ondoren hondakinak kudeatzeko baimena daukan lantegi batera eramaten dira, bertan balioztatu eta kasuan kasuko tratamendua har dezaten.

V. Urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak (hemendik aurrera SPAJL), honako hau ezartzen du 11. artikuluko ("Kudeaketa-gomendioak") 1. apartatuan:

"Administrazio-organoen edo zuzenbide publikoko entitateen eskumeneko jarduera materialak edo teknikoak administrazio bereko edo beste bateko beste organo edo zuzenbide publikoko entitateen gomendio utz daitezke, jarduera horiek haien eskumenen barruan badaude, efikaziari begira komeni bada, edo jarduera horiek gauzatzeko baliabide tekniko egokirik ez badago"

Eta artikuluko bereko 3.b apartatuan honako hau ezartzen du:

"Kudeaketa-gomendioa administrazio desberdinetako organo edo zuzenbide publikoko entitateen artean egiten denean, dagokion hitzarmena izenpetuz formalizatuko da; (...). Aipatutako hitzarmena Estatuko Aldizkari Ofizialean, autonomia-erkidegoko aldizkari ofizialean edo probintziakoan argitaratuko da, gomendioa egiten duen organoa zein administrazioetako den kontuan hartuta"

Horrekin guztiarekin bat etorritz, alderdiek honako hau

ADOSTEN DUTE

Klausulak:

Lehenengoa. Hitzarmenaren xedea (SPAJL, 49.b artikulua).

Hitzarmen honen xedea da oinarrizko baldintzak ezartzea lan hauen kudeaketa esleipenerako, hitzarmenak dirauen bitartean: San Gines (Bastida), Samaniego, Berberana eta Poveda (Guardia), San Justo (Oion) eta Bercijana (Iekora) aisialdirako tokiko parkeetako edukiontzietako zaborra bildu eta ondoren hondakinak kudeatzeko baimena daukan lantegi batera eraman, bertan balioztatu eta kasuan kasuko tratamendua har dezaten.

Bigarrena. Alderdiak onartzen dituzten betebeharrak eta konpromisoak (SPAJL, 49.d artikulua) eta horiek bete ezean jasango dituzten ondorioak (SPAJL, 49.e artikulua).

A) Guardia - Arabako Errioxako Kuadrillaren betebeharrak:

Guardia -Arabako Errioxako Kuadrillari dagokio bere eraginpeko areako aisialdirako tokiko parke horietan sortzen diren zabor eta hondakinak bildu eta ondoren, balioztatu eta kasuan kasuko tratamendua har dezaten, hondakin kudeatzaile baimendu batera eramateko zerbitzua ematearen kudeaketa.

Aisialdirako tokiko parke bakoitzean gutxienezko edukiontzi kopuru bat ipini beharko da eta zerbitzua gutxienezko maiztasun batekin egin beharko da:

URTEKO ALDIA			
PARKEAK	EDUKIONTZIAK	EKAINAREN 1ETIK IRAILAREN 30ERA	URRIAREN 1ETIK MAIATZAREN 31RA
San Gines (Bastida)	2	3 egun astean	1 egun astean
Samaniego	1	1 egun astean	1 egun hamabostean
Berberana (Guardia)	1	1 egun astean	1 egun hamabostean
Poveda (Guardia)	1	1 egun astean	1 egun hamabostean
San Justo (Oion)	1	2 egun astean	1 egun hamabostean
Bercijana (lekora)	1	1 egun astean	1 egun hamabostean

a) Biltzen diren zaborrak eta hondakinak zabortegi kontrolatu batera eraman eta bertan utzi behar dira.

b) Edukiontziak garbitu, desinfektatu eta desintsektatu egin behar dira, udan hilean behin gutxienez eta gainerakoan hiru hiletik behin, eta Toki Administrazioaren eta Larrialdien Zerbitzuak arrazoiak azalduta agintzen duenean ere bai.

c) Edukiontziak aipatutako tokiko parke batetik beste batera edo Arabako Foru Aldundiko Parke Mugikorretik parkeetara eta alderantziz mugituko dira, hala behar izanez gero eta Toki Administrazioaren eta Larrialdien Zerbitzuko arduradunak hala adierazten badu.

d) Aparteko lan gisa, beheko taulan azaltzen diren erromeriak eta jaiak egin ondoko egunean aisialdirako tokiko parkeetako edukiontzietako zaborrak eta hondakin solidoak bildu eta eraman beharko dira. Ekitaldi horietan ez ezik baliteke beste batzuetan ere egin behar izatea zerbitzu hau; aldez aurretik eskatuko da. Hona taula:

PARKEA	EKITALDIA
San Gines (Bastida)	Maiatzak 29
Berberana (Guardia)	Irailako 1. larunbata
Bercijana (lekora)	Abuztuak 21

Kuadrillak zerbitzua kudeatzeko ardura daukan urte bakoitzerako aurrekontua bidali behar dio Lurralde Oreaken Saileko Toki Administrazioaren eta Larrialdien Zerbitzuari, aurreko urteko abenduaren amaieran.

Hitzarmenaren indarraldiko lehen urterako aurrekontua, 2020ko ekitaldirako, 7.602,23 eurokoa izango da, BEZa barne. Zenbateko hori mantendu egingo da hitzarmenak dirauen hurrengo ekitaldietarako (2021, 2022 eta 2023), salbu eta urte bakoitzaren amaieran esleितutako kuadrillak kudeaketa gauzatzeko kostuen igoera justifikatzen badu, Lurralde Oreaken Zuzendaritzaren oniritzia lortzen badu, eta betiere etorkizuneko ekitaldi bakoitzeko Arabako Foru Aldundiaren Aurrekontuetan urte bakoitzerako dagoen aurrekontu esleipenaren gehieneko mugarekin.

B) Arabako Foru Aldundiaren betebeharrak:

Arabako Foru Aldundiak ekitaldi bakoitzerako aurkezten den aurrekontua aztertuko du, eta ontzat eman ondoren, osorik finantzatuko du aipatutako parkeetako zaborrak bildu, hondakinak zabortegi kontrolatuetara eraman eta edukiontziak eta haiek dauden tokiak garbitzeko lanen zerbitzua.

Lurralde Orekaren Sailak sei hilean behin emango du lanak ordaintzeko agindua; horretarako, kuadrillak hiruhilekoa amaitu aurretik aurkeztu beharko ditu aldi horretan egindako lanen fakturak, eta Toki Administrazioaren eta Larrialdien Zerbitzuak horiekiko adostasuna adierazi beharko du.

Hitzarmen honen indarraldian, Lurralde Orekaren Sailak kuadrillari zerbitzugintza luzatzeko edo bertan behera uzteko eskatu ahal izango dio, baldin eta aplikatzen den esparruan aisialdirako tokiko parke berriren bat egiten bada edo daudenetako bati baja ematen bazaio.

C) Alderdiek onartutako betebeharrak eta konpromisoak urratzearen ondorioak:

Esleipena jasotzen duen enpresak ez badu behar bezala betetzen Arabako Foru Aldundiak Guardia - Arabako Errioxako Kuadrillari esleitutako zerbitzua, Aldundiak eskubidea edukiko du emandako esleipena amaitutzat jotzeko eta aurkezten zaizkion fakturak eta frogagiriak ez balioztatzeko eta ez ordaintzeko.

Hirugarrena. Hitzarmenean ematen den ardura gauzaten den jarraitzeko, zaintzeko eta kontrolatzeko mekanismoak (SPAJL, 40.f artikulua).

Jarraipen batzordea eratzen da, alderdien arteko lankidetzeta eta harremana estuak izan daitezten eta hitzarmenaren xedea gauzatzeko egin beharreko jarduketak ondo koordinatzeko. Hona hemen kideak:

– Arabako Foru Aldundiaren ordezkaria, Toki Administrazioaren eta Larrialdien Zerbitzuko burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Guardia - Arabako Errioxako Kuadrillaren ordezkaria, hango gerentea edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Jarraipen batzordea alderdi batek eskatuz gero bilduko da, emandako ardura behar bezala betetzeko lanetan edo lanen fakturen eta ordainketen inguruan sortzen diren auziak aztertzeko.

Alderdiek hitzarmenaren dute elkar hartuta aurkituko dietela irtenbidea hitzarmen hau edo horren ondoriozko erabaki espezifikoak interpretatu edo betetzean sor daitezkeen desadostasunei.

Laugarrena. Hitzarmena aldatzeko araubidea (SPAJL, 49.g artikulua).

Hitzarmen hau edo bertan arautzen den kudeaketa ardura aldatzeko sinatzaileen ahobatezko adostasuna beharko da.

Bosgarrena. Indarraldia (SPAJL, 49.h artikulua).

Hitzarmen hau lau urtez egongo da indarrean, 2020ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra arteko ondorioekin. Epe hori amaitu baino lehen, luzatu ahal izango da, behin bakarrik eta beste lau urtez gehienez, alderdiek aho batez adostuta luzapen hori.

Kudeaketa esleipena urtebeterako da, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera; beste hiru urtez luzatu ahal izango da gehienez, edo beste lau urtez, 2020-2023 aldia amaitutakoan, hitzarmena bezala, eta horretarako ere alderdien arteko adostasuna beharko da, eta prezioa kuadrillak indarraldiko urte bakoitzaren hasieran eskaintzen eta aurrekontuan ezartzen duena izango da, Arabako Foru Aldundiak onartu ondoren, baldin eta alderdietako batek ere ez badu proposatzen hitzarmena azkentzea ekitaldia amaitu baino bi hilabete lehenago, indarraldiaren barruan.

Lehen lau urteetan, urte amaitu baino lehen alderdietako batek ere ez badu eskatzen hitzarmena azkentzea, kudeaketa esleipena luzatutzat joko da hurrengo urterako isilbidez.

Seigarrena. Hitzarmena azkentzeko eta suntsitzeko arrazoiak (SPAJL, 51. artikulua).

Hitzarmen hau indarraldia amaitutakoan azkenduko da; horrez gainera, honako arrazoi hauengatik suntsituko da:

Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak:

- a) Hitzarmenaren indarraldian lau urteko luzapena ez adostea.
- b) Sinatzaile guztiek edo haien karguetako ondorengoek aho batez adostea hitzarmena suntsitzea.
- c) Oro har, alderdi batek hitzarmen honen ondoriozko betebeharrak bat ez betetzea.

Kasu horretan, alderdietako edozeinek errekerimendua helarazi ahal izango dio betebeharra bete ez duen alderdiari, epealdi jakin batean bete dezan bete gabekotzat jotzen den betebeharra edo konpromisoa.

Errekerimenduan adierazitako epealdian egoerak bere horretan jarraitzen badu, hau da, ez bada betetzen bete gabekoa, errekerimendua egin duen alderdiak besteari jakinaraziko dio hitzarmena suntsitzeko arrazoiak gertatu dela, eta hitzarmena suntsituzat joko da.

d) Epai bidez adieraztea hitzarmena deuseza dela.

SPJALk 52. artikuluan xedatzen duenaren ondorioetarako, alderdiek adosten dute hitzarmena suntsitzeak inolaz ere ez duela ekarriko sinatzaileek kalteordaina eman beharra.

Zazpigarrena. Hitzarmenaren izaera eta jurisdikzio eskuduna.

Hitzarmen hau administratiboa da. Hitzarmenaren interpretazioaren eta gauzatzearen inguruan sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioari jakinarazi beharko zaizkio eta haren eskumenekoak izango dira.

Eta ados daudela adierazteko, alderdiek hitzarmen hau sinatzen dute goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Arabako Foru Aldundiaren ordezkaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA

Guardia - Arabako Errioxako Kuadrillaren ordezkaria

JOSEBA FERNÁNDEZ CALLEJA